

# Ze barri?

1999  
URRIA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

34 zkia.

*Urlatik Landetara*

**Elkarrizketa:**  
**Iban Urzelai,**  
**Aldaipeko kidea**

---

**Erreportaia:**  
**Haurren igerileku berria**

---

**Eskoriatzarrok munduan:**  
**Gaizka Garai europar zehar**

---



**Igerileku berria  
haurrentzat**



# BAZAR LEINTZ

Opariak, etxeko tresnak eta  
jostailuak

Olazar, 8 • Tf. 610 905576

# R E L E

Faustino Legazpia

Tel. 943- 71 40 72

# ANGEL Aseguroak

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORATZA

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



gizarte-ekintza  
obra social

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☎ 943 79 81 78  
ARETXABAETA

# AZKOAGA

## ESTANKOA

Zure zerbitzura



## DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 943 71 51 20



## bedardenda

Tfnoa.: 943 714327  
ESKORATZA

## Golo gazte moda

Tel.. 943- 71 45 61

Cuenta Joven  
de Caja Laboral  
El servicio  
más completo.

Euskadiko Kutxaren  
Kontu Gaztea.  
Zerbitzuetan  
osatuena.

  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 943- 715061

 **SUZUKI**

# TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA



## Sukaldeko tresneria

Aingeru Ibiltokia, 3  
Tf. 943 714131/943714256

# COMPOSTELA

taberna

Berezitasuna:

**Pulpoa gallego erara.**  
San Pedro, 12

San Pedro jai zoriontsuak!



943 71 20 02

## ZURE PUBLIZITATEA HEMEN

## DEITU. 943 71 54 34



## EOLIKUE= GARBIXE ETA ALTERNATIBUE. BETI?

Egixa esan gaur komentetara noien temiaz eztaukat eretxi bat formautu eztozelako larreiko ondo dominetan. Normalien, gainera, etxat gustetan, eta ez ta nire ohituria holako kondizinetan eretxi bat emutia. Baina barrez, gaur, hau konportamentu klasiu alde batera itxikot ditxosozko Elgiako Parke Eolikuen gainien berba eitteko. Izen be, eta gehixen bat udazken parte hontan, ez ta beste gauza asko gehixautaz berbetan Eskoitzta, herri moruen esan gurot, aittaketan danien periodiko, errebista eta antzerakuetan. ZE BARRI-n be maki-natxo bat erreportaje etab.ek urten daue honen gainien idako hilabetiokaz, eta niri, azkenien, herrixen pil-pilien dauen temiau gainetik pasetia etxat egokixa pentsau.

Gainera, ZE BARRI aittatu dotenez, animetia gustauko litxaket holako debate zabal baten aurrien, esateko erozer gauza dauken erozeinek parte hartu daixen, nire moruen idea larrei eztaukounoi eretxi bat formetan lagunketako beste gauza askon artien.

Dana dala, begibistakua da asunto ekolijikuak zeresan ugeri ekarri biheittuela. Eskoitzta inguruen proiektu-ta dazen makro obrak plazo motz ero luzetxuauen itzelak dielako (Parke Eolikua, autopistia, abixera haundiko tren...etab.) Honek guztionez gudan klase askotako eraginak eukikoittu asike eztoz uste geldik geraketakua danipe. Eta nik leiru eta entendiru hal izen doten arte, itxuria danez, problema ez ei da zer ein bihedan, zelan ein bihedan baino. Emuten dauenez,

mundu guztia dauelako enerjia eolien alde garbixa eta alternatibua dan neurrixen, eta jakina, hola presentetan daue promotoriak (Eolicas de Euskadik, Euskal Gobernuak....) garbixa, barriztau leikiena, alternatibua, modernua, atzen baten, etorkizuneko enerjixia zuk eta zure enpresiak ezinbestekua eukikozena hemendik aurrera ondo bizitteko, eta hori bai, gure konplejua asetuteko asmuaz, europuen antza eukitteko. Izen be, lurra, ura eta haixia oinarritzkuak die eta ez gittuke alperrik galdu biher, baina Euskal Herrixen orografixiahatik, poblazino densidadia dala, eta industrializazinuahatik, halako lur kantidadia konsumiru ei da aspaldi defizitaxuak izetera ailegau garela.

4. faktoria. Erromako Klubai Informia. liburuen hola leiru geike "... egualdixak erainddako erosinuak ero bolkanen erupzINUapaino lur gehixau mobiruteittu personiak. Honeik lur mobimentuok kalte itzelak sortuteittue, katioi kantidade ikaragarrixen desaparizinuuen errezoia dielako. Katioiak jatxittiak lur eta uren azidifikazinuua dakar.... honen azidifikazinuonen errezoia ez ta horrenbeste euri azidua lur mobimentuapaino. Konbustino industrial prozesu guztiakatipaino lur mobimentuakatik azufre dioxido gehixau sortuten da. Baso tropikalak mineralak atarateko eitten dien kaminuakatik kaltetuau geraketan die kentzen dien arbolakatipaino."

Mendi gainak aberatsak ei die katioietan eta hortik ei dator hainbeste pista eta lanerako zuluak denunziatoko

errezoia. Esplikau daixiela zeatik dan hemen oso ona baso tropikaletan horrenbeste arbola mozketiaz hain txarra dana. Errekonoziruten dan inpakto bakarra gainera, "inpakto paisajistiko subjettibua" da. Eta nik preguntetan dot, inpakto paia-sajistikuak izen leikez subjettibuak?. Kazarixak "pasa" eta "kontrapasa" moruen ezauketaittuen sasoietan, milaka urte bide bat eitten dabitzen txorixak bidia aldatu eitten daue "inpakto paisajistiko subjettibo" batzkatik. Noixtik dauke animalixak subjettibidadia?.

Inbernadero efektuko gasak jatxitteko beste gauza batzuen artien enerjia eolikua biher ei da. Baina "haixe errotak" deittu geikion katxarruok jentia bizi dan inguruen iphinttia komeni ei da, gainera batzuk esaten daue egokixena krisi industrial pasau dauen partietan jartia dala halako parke eoliko bat, hola haixe kantidadien galtzen dana enerjixioi sortu eta konsumiruten dan tokixen arteko distantzian irabaziko ei litzakielako (errezoitontu honeatik gaur sortuten dan % 50 a galdu eitten ei da). Hola, gainera, mendi gainak erozein inpaktotik kanpo itxiko litzakez, baitta inpakto paisajistiko subjettibuetatipe. Eta Elgiako hori mendi gain partioi beti izen dan parke eolikua izeten jarraituko ei lauke: haixia arbolakin, bedarraz, atxakin, eta mendizaliakin bere jolastxuak eitten jarraituko laukien tokia.

D.M.III.na



Eskoitzako Udalak diruz  
lagundutako aldizkaria  
Euskara Batzordea



**ZE BARRI?**  
Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA  
Erredakzio kontseilua: Garikoitz Kortazar, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.  
Kolaboratzailea: Aitor Urrutia, Asier Errasti.  
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.  
Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99 ISSN: 1139-9856  
"ZE BARRI?" aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



Leintz Gatzaga Udalak diruz  
lagundutako aldizkaria



GATZAGA



**SAN VIATOR IKASTETXEKO ATEAK IREKITA  
ESKOITZAR GUZTIOI**

Urriaren 21ean, ekitaldi berezi bat ospatu zen San Viator ikastetxean. Udala eta fakultatearen eskutik, eta KUTXAren laguntzaz jende asko bildu zen San Viator egunean. Ekitaldiaren helburua, eskoriatzar guztioi eraikin zahar

honen itxura berria erakustea zen eta bertan egin diren lanen fruituak ikustea. Baina, batez ere, herritarrak Eskoriatzako historiaren zati bat gordetzen duten harri hauetara hurbiltzea. Herritar askok eraikin hau ondo ezagutu dute; ospitale, asilo, nahiz komentu moduan. Orain itxura berri honekin herritarrei irekia egoten jarraitu nahi du.

Bildutakoei ongi etorria eman eta hitz labur batzuen ondoren trikitrixa kontzertu bat egon zen Donato eta Edurne soinu-joleen eskutik. Ekitaldiari amaiera emateko, San Viator eraikin berrizatuari bisita bat egin zitzaion.



Ongi etorria eman zutenak, udalaren izenean, kultur zinegotzia den David Arrieta eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien izenean, bertako idazkaria den Juanjo Otaño izan ziren.

**LABURREAN:**

**ZABALA PELOTARIAK  
LAUTERDIKO  
TXAPELKETA BOROBILA**

Joan den larunbatean **Edorta Zabala** Eskoriatzako pelotari profesionalak bere lauterdiko lehiaketako partidua 22 eta 20 galdu zuen Jokin Etxaniz bertararraren kontra.

Partidu honekin eman dio amaiera aurtengo bere partaidetza onari. Gogoan izan aurretik kanporaketa bi irabazi dituela eta azkena Jokin Lasaren lesio bat dela eta jokatu beharrik ez zuela izan.

Datorren urtean beraz, esakileran, aurten baino hiru maila gorago ekingo dio. Zorionak!

**Eskoriatzako gazteak basolanetan**

Irazabal gainean (Ertzainen antena dagoen inguruetan) Eskoriatzako hainbat gazte bolondres, ilarra belarraren haziak batzen aritu dira aurreko asteetan. Ilarra, hemen inguruan oso ugari dagoen landare autoktonoa da, morea koloreko lorea izaten duena. Elgeako parke eolikoaren obren ondorioz, leku askotan galdu daitekeen arriskua dago. Horregatik, Eskoriatzako udaleko ingurugiro sailak haziak jasotzeko ekimen hau martxan jarri du, behin obrak amaitzean, haziak berriz ereiteko.

Aurreko astean ekin zitzaaien bilketa lanei. Aste honetan ere, ostiral arratsaldean eta larunbat goizean, jarraituko dute ilarra hazia jasotzen. Baso lan honetan lagundu nahi duenak, udaleko ingurugiro sailaren arduradunarekin, Josu Azkaraterekin, jarri daiteke harremanetan.



**Irrintzi**  
TABERNA  
Tel. 943 71 46 83

carpinteria  
**leniz**  
AROSZTEGIA  
Tfnoa. 943 71 49 36

**Toki Eder**  
TABERNA  
Oilasko erreak  
**943 71 54 38**

**E. MAZMELA**  
HORTZ KLINIKA  
Tel. 943 714936



# Aurrera doaz olinpiadak

Koadrilen arteko II. olinpiadei ekin, urriaren 16an ekin zitzairen, eta lau astebukaeratan luzatzea espero da. Orainarte izan duten erantzuna oso ona izan da, hamalau talde apuntatu dira eta ia gehienek parte hartu dute larunbateko zita horietan. Aurreko larunbatean suspenditu egin zen eguraldi txarragatik baina hurrengoetan jarraipena izango dute.



Lehen astebukaeran, bizikleta poteoa egin zen herrian zehar. Ondoren, gosetu zirenean bazkaria zeukaten prestatuta herriko plazan. Guztira, 80 lagun. Bazkal ostean, korrika su ziria eraman zen herrian zehar.



Arratsalde honetan herri kirolak egin ziren. Bigarren larunbatean, eguraldi goibelagoa izan arren, umetan hainbetsetan jolastutako jolasetan (painuelito, futbolina, pilota jaurtiketan...) gustura aritu ziren Eskoriatzako koadrilak.

Herrian jolas hauek guztiek ikusmin handia sortarazi dute, gazteak, builaka, elkar animatuz gustura ibiltzen baitira eta herriko enparantza jendez gainezka egoten da.

Oraindik beste bi larunbatetan ere izango dugu zer ikusirik. Hurrengo asteburuan, azaroaren 13an, talde kirolak egingo dira (hockey, volley ball, badminton...) eta azken larunbatean, berriz, olinpiadei amaiera emateko egun osoko jardunaldia egitea dago pentsatua.



Larunbat honetan, Aitzorroztz izango da gazteen topagune. Arratsaldean, herrira jaitsiko dira, plazan afora merixenda prestatzeko. Koadrila bakoitzak tortila bana egingo du eta ondoren, guztien artean jango dira. Bitarte honetan, pantaila erraldoian olinpiadetako irudi onenez gozatzeko aukera izango da. Eta olinpiadak, festa giroan hasi bagenituen, bukatu ere horrela egingo dira, musika talde batek larunbata gaua girotuta.



Herriko taldeak ere animatu nahi dira egun honetan jo dezaten.

Ostegun arratsaldetan Eskoriatzako gazte guztiei irekita egiten diren bileretan erabakitzen dute guztien artean, zein proposamen aurrera eraman.

Gazte Asanbladak sortu berria izan arren, orain arte egin dituen ekintzekin Eskoriatzako gazteak eta hain gazte ez direnak ere mugitzea lortu du eta eskoriatzarren artean halako ekintzekin aurrera segitzeko sumatzen den gogo eta ilusio honek, denborarekin emango dio Gazte Asanbladari irauteko beharrezkoa duen sendotasuna.



**Benta Motz**

Taberna

Tel. 943- 71 48 22

**Txalaparta**

Jatetxea

Tel. 943- 71 50 46

**egizabal**  
o i n e t a k o a k

ARRASATE - Ferrerías, 9 - Tf. 943 79 66 01  
BERGARA - Bidekurutzeta, 13 - Tf. 943 761228




**UDAZKEN KULTURALA**

Iritsi zaigu udazkena, eta urtero bezala, herria kulturaz janzteko, ekitaldi ugari antolatu ditu Eskoriatzako Kultura Batzordeak. Herriko elkarte ezberdinen laguntza izan du hauek antolatzeko.

Hauek dira azaroan ikus eta entzun ahal izango ditugun ekitaldi kulturalak:

<b>8-14</b> Argazki erakusketa " <b>Ene Erraietara</b> " Egilea.- Jose Ramon Aguirre.	<b>18.00-20.00</b> Kultur Etxean
<b>9</b> asteartea Hitzaldia.- " <b>Kreatibitatea</b> " Hizlaria.- Pablo Diaz de Guereñu.	<b>18.30</b> Kultur Etxean.
<b>10</b> asteazkena Diapositiba emanaldia: " <b>Ene Erraietara.Nepal</b> ". Egilea.- Jose Ramon Aguirre	<b>19.00</b> Kultur Etxean.
<b>12</b> ostirala Hitzaldia " <b>Setas de otoño</b> " Hizlaria.- Juan Ignacio Iturrioz (Aranzadi).	<b>18.30</b> Kultur Etxea.
<b>13</b> larunbata <b>Mendi irteera perretxikoak biltzera.</b>	<b>9.00</b> Herriko plaza.
<b>13</b> larunbata " <b>Ezkurtxo Apotzan kontu kontari</b> ". Ipuin kontaketa, diaporama, ibilaldia...	<b>16.00</b> Apotzaga
<b>14</b> igandea <b>Perretxiko erakusketa</b>	<b>12.30</b> Plazan
<b>15</b> astelehena Hitzaldia " <b>Bizitza eman urteei</b> " Hizlaria.- Xabier Gomez gure parrokoa.	<b>18.00</b> Kultur Etxea.
<b>18</b> osteguna Hitzaldia " <b>Dieta equilibrada</b> " Hizlaria.- Izaskun Irulegui Eguibar	<b>18.30</b> Kultur Etxea.
<b>19</b> ostirala Diapositiba emanaldia. " <b>Vietnam</b> " Egileak Bea eta Imanol.	<b>19.30</b> Kultur Etxea.
<b>20</b> larunbata " <b>Santa Cecilia</b> " kontzertua Musika Eskolako Banda.	<b>20.00</b> Parrokia
<b>20</b> larunbata " <b>Bertso Afaria</b> " Andoni Egaña- A. M <sup>a</sup> Peñagarikano- Oihane Enbeita	<b>21.30</b> Toki Alai Tabernan
<b>27</b> larunbata " <b>Takolo, Pirritx eta Porrotx</b> " pailazoan azkenengo ikuskizunaren estreinaldia.	<b>17.00</b> pilotalekuan.

**UDAZKEN HONTAN,  
KULTURAZ BLAI.  
HI ERE BAI !!!**



Goian, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoek ez dute hutsik egiten Eskoriatzan duten urteroko zitan.

Ezkerren, 1997an izan zen bertso afarian bertsozaleak gustura egon baziren aurtengoan ere orduan adina gozatuko dute bertsolarien bertsoez.



**Industrias Olabarri, S.A.**

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)  
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxe: 34-43 - 714061



**Autos Muru S.L.**  
Araba Etorbidea, 3  
20500 ARRASATE  
Telefonia 943 792716

FRANCISCO GONZALEZ ELICES



## IBAN URZELAI

ALDAIPE, Ehiza eta Arrantza Elkarteko kidea.

**1. Zer da Aldaipe? Noiz sortua? Zertarako?**

Ehiza eta arrantza elkarte bat da eta duela urte asko sortua da, ez dakit zehazki zein urtetan baina uste dut 1976 urte inguruan sortu zela. Bere eginkizuna orokorrean, ehiztariei gauzak erraztea eta ehiza asuntok ahalik eta modu onenean eruetia.

**2. Arduradun bezala, zein da zure eginkizuna?**

Erabakiak denen artean hartzen ditugu. Direktiban 9 pertsona gaz eta bakoitzak funtzio bat du; bat presidente, beste presidenteorde, bokala, tesoreroa, idazkaria... eta niri presidente izatia tokatu jat, baina besterik gabe.

**3. Egunero Toki Alai tabernan ehiztari postuen zozketa egiten da? Zeintzuk dira postuok? Zertarako?**

Betik egon die ehiz postuak eta honen helburua da ehiztari denek ehizarako aukera izatia da. Elkartiak ez du honen bidez dirurik atera nahi, baizik eta ehiztari guztiek ehizatu ahal izatia. Batzuk ondo hartzen dute hau, eta gutxi batzuk ez hain ondo. Baina ehiztarien %99ak nahi da zozketa egitea.

**4. Ehiztariak euren artean postu onena lortzeko burruka egiten al dute?**

Ehiztari artien beti izaten die inbidixak eta horrelako gauzak ... horregaitik da sortea gauzik legalena. Toketan bada tokau jatzu.



Denak aukera berdina dute, gainera horrela ehiza kontrolatuagoa dago.

**5. Zeintzuk dira ehiztari on baten ezaugarriak?zuk zeuk ezaugarri horiek betetzen al dituzu?**

Ehiztari baten kualidadiak zein diezen denok dakigu, baina oso garrantzitsua da natura errespetatzen jakitia, eta ingurua garbi mantentzia. Horretarako dago, baita ere, elkartia. Garbiketa generala egiten dou zozketak amaitzen diezenien. Apozaga- Lete eta Marin-Zuberon garbiketa bat egiten dou.

**6. Ze moduzkoa doa aurtengo ehiza denboraldia?**

Gaurkoa oso ona, baina orokorrean nahiko grisa. Normalian egun tristiak izaten dira, bokadilua jateko egunak...

**7. Zein izan da orain arte egin duzun ehizarik onena?**

Denboraldi honetan gaurkoa (urriak 27), hiru uso hartu ditut, eta

nere bizitzan gehien hartu ditudanak, egun batean bederatzu uso izan dira.

**8. Ehizean hiltzen zailena den hegazia?**

Dudarik gabe antzarra.

**9. Ehizara joan eta uso pasarik ez denean ez al zarete aspertzen?**

Bueno, batzuk berrikeretan jarduten dugu, bokadillua jan edo etxera joaten gare bueltan, zerbait alternatibua egiten saiatzen gare. Beste batzuk tiroteuan ibiltzen dira eta hori jentia da kontrolau biedana.

**10. Zenbat txakur dituzu?ehizean nolakoak dira?**

Txakur bat daukot eta oso lotzabakua da. Pertsona bakoitzak dauko txakurra gauza baterako,egia esateko mundu bat da..

**11. Ehizarako afizioa garestia da, baina garestia izateaz gain, bizio txarra al da? Eskopeta, kartutxoak, lizentzia, kotuak...**

Bai egia esateko garestia da. Beti esaten dot, ea beste afizio bat topetan doten, baina egia esateko oso gustokoa du ehiza.

**12. Eskoriatzako alkate bazina, zer egingo zenuke herriaren alde?**

Oso inportantia iruditen jat mendixak garbi mantentzia eta hortan ehiztarixak mentalizau eta udalak lagundu behar du.



**EDURNE**  
ESTETIKA ZENTRUA

Aranburuzabala, 42  
Tfnoa.: 943 71 51 54

**ARISTIDES**

BAINU INSTALAKETAK, GASA ETA KALEFAZIOA  
Otalora, 9 • Tfnoak: 943 791323 - 943 794267  
ARRASATE-MONDRAGON



# HAURREN IGERILEKU BERRIA ESKORIATZAKO KIROLDEGIAN

Uda partean Eskoriatzak badu halako hutsune bat, beroak astintzen gaituenean denok nahi izaten dugu eguzkia hartzea eta uretan freskatzea. Horretarako gehienetan Araba aldeko pantanoetara jotzen dugu, baina kasu askotan, hauek, urrunegi geratzen direlako ez gara uretan freskatzeko. Egun pasa joateko bai, baina bestela Garaio edo Ullibarri nahikoa urrun geratzen zaizkigu.

Gainera haurrak izaten dira uda parte honetan gehien gozaten dutenak, eta hor bai, Eskoitzak badu behar bat.

Hala ere, hurrengo udan ez dugu inora joan beharrik izango, eta Eskoitzako haurrek herri bertan, uretan murgiltzeko aukera izango dute. Eta hori, seguraski haurrek bezainbeste gurasoek eskertuko dute.

Haurren igerileku bat eta solariuma (eguzkia hartzeko zelaia) egiteko proiektua martxan da jada.

Eskoriatzako Udalak iraileko plenoan onartu zuen obren adjudikazioa, ZUTARRI enpresa izango da lan honetaz arduratuko dena eta obra osoaren kostua 21 milioi ingurukoa izango da.

Proiektuak zelai baten egokitzea eta haurren igerileku berri baten eraikuntza barneratzen ditu.

**HAURREN IGERILEKUA:** 0-8 urte bitarteko haurrentzat egindako igerilekua. Zortzi baten itxura izango du.

**SOLARIUM** edo **ZELAIA:** eguzkia hartzeko nahiz haurrak jolasteko zelai bat egokituko da haurren igerileku alboan.

Zerbitzu berri hauen kokapenari dagokionez, kiroldegiaren



kanpokaldean dagoen zelaian izango dute kokagunea, egungo igerilekuaren alboan. Barneko igerilekua (klimatizatu) eta kanpoko (haurrena) elkarrekin komunikatuta izanen dira. Horretarako, igerilekuaren kristalezko leihoak zabaldu egingo dira eta eskilara batzuen bidez joan izango da kanpokaldera.

Horrela, zerbitzu hauek guztiak bat egingo dute, elkar komunikatuak izango dira; helduentzako igerilekua, haurrentzako igerilekua eta zelaia.

Obrak nork egin erabakita dagoenez, segituan hasiko dira lanean, behintzat lanak hasteko baimena emana dago. Beraz, hurrengo uda parterako egingo da, seguruenik, igerilekua.

Honetaz aparte igerileku ondoan umeentzako parke bat egiteko proposamena egin da dagoeneko, kolunpio eta hantzekoekin, aurrekoen osagarri gisa.

Egun, kiroldegiak 2 urte bete behar dituenean, zerbitzu ugari ematen

dizkie Eskoitzarrei eta ikusten dugunez zerbitzu hauek zabaltzeko bidean doa. Haurrek erabilera handia ematen diote igerilekuari, batez ere ALMEN ikastolatik edo LUIS ECEIZA ikastetxetik arrapaladan etortzen direnean, eta udara parterako txikienek ere erabili ahal izango dute igerileku berria.

Besteak beste, ondorengo zerbitzuak eskeintzen ditu. Gimnasioa, igerileku klimatizatu, balioanitzeko pista, sauna, eta abar. Gainera, ikastaro ezberdinak ere antolatzen dira bertan: igeriketa ikastaroak, aerobic, karate, 3. adinekoen soinketa, eta abar luze bat.

Azkenik esan behar da balioanitzeko pistaren harmailen goi aldean taberna bat irekiko dela, hau ere hurrengo hilabetetan.

Beraz, kiroldegia zabaltzen doala ikus dezakegu, bere zerbitzuak zabalduz eta herritarrei eskaintza zabalagoa emanez. Orain geratzen dena herritarrok kirol eraikin hauei ahalik eta etekinik handiena ateratzea da.



## ELGEAN, ZENTRAL EOLIKORIK EZ! Lemapean, mobilizazioak aurreko asteburuetan.

Urriaren 24an, igandea, Eleago zentral eolikoaren aurkako manifestazio jendetsua Eskoriatzan hasi eta Aretxabaletan bukatu zen. Urriaren 30ean, larunbata, Elgeara, mendi martxa izan zen osterara, horrela, mendian egiten hasiak diren obra horiek gertutik ikusteko. Ehunaka lagunek parte hartu dute Elgean eraikitzeotan den zentral eolikoaren kontrako protesta ekintza hauetan. Guztiek ere, lema bat gogoan <<Elgean, zentral eolikorik ez!>>.



Ekintza hauekin, Elgean ezarri nahi den zentral eolikoaren aurka protesta egiteaz gain, energia eolikoaren ustiapena gauatzeko EAEn eta Nafarroan jarraitu nahi den planteamenduaren kritika ere egin zen. Mobilizazio hauek antolatatu dituztenek beti erakutsi izan dute energia eolikoa erabiltzearen aldeko jarrera, baina ez

edozein modutan. Jarrera horri eusten segitzeko arrazoi pisutsuak eman zituzten zabalduak komunikatuan.<<Mendietan horrelako zentralak eraikitzeak, mendiak industrializatu eta hauek suntsituko ditu. Beraz, energia garbia dena, modu zikinean erabiliko da>>azaltzen zen.

Gainera, Elgeakoa hasiera baino ez da; Hego Euskal Herrian horrelako

beste zentral ugari eraikitzeo aurreproiektuak ezagutzen dira (EAEn 26 aurreproiektu daude diseinatuta eta Nafarroan, berriz, guztira 30). Aitzitik, zentral eoliko hauetatik lortuko litzatekeen energia kopurua oso da sinbolikoa. Kontsumo osoaren %5era ez litzateke helduko, eta zeina urtero %4 a hazten den.

Eólicas de Euskadi enpresak Elgean zentrala eraikitzeo dituen presak oso susmagarriak ei dira, izan ere, oraindik ez da garatu energia eolikoa EAEn ezartzea arautuko lukeen PTSa, hots, Plan Territorial Sektoriala. Hala eta guztiz ere, obrei uztailean ekin zitzaizen eta komunikabideetan Eólicas de Euskadi enpresak adierazi duenez, obra hauek bederatzita hilabetetan amaitzea espero dute.

### **Eskoriatzako udalaren baimenik ez oraingo:**

Gainontzeko udalerrietan Eólicas de Euskadi enpresak obrei ekiteko baimena jaso duen arren, Eskoriatzako udala salbuespena da. Eskoriatzako udalak, Arau subsidiario berriak tramitatzen ditu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia jaso arte udalak ezin du arau horiekin lotura estua duten gaien aurrean inolako erabakirik hartu. Baina, Eólicas de Euskadik, baimenak lortu dituen udalerrien lurretan lanean jarraitzen du.

### **Parke eolikoko lanen jarraipena:**

Urriaren 20an Elgeako parke eolikoko lanek jarraipen zehatza egingo duen batzordea eratu zen. Batzorde honek obrek irautean duten bitartean, Parke Eolikoaren Ingurugiro azterketan azaltzen diren neurri zuzentzaileak, ondare naturala eta kulturala babesteko neurriak etab. Betetzen direnentz segurtatu beharko du. Horretarako obrak gertutik jarraituko ditu.

**Azkenean, proiektu honetan inplikaturako familiek ez dituzte beren lurak galduko**

### **Obrak behin eta berriro gelditu dira:**

Elgeako mendilerrera estreinakoz igo zirenetik, Eólicas de Euskadik bidalitako eskabadora eta buldozer zaratatsuak planteamendu zehatzik gabe, era deskontrolatua aritu dira lanean. Ondorioz, obrak behin eta berriro gelditu zaizkie. Adibidez, parkearen perimetrora iristeko, pista gehiegi egin dira Larreatik. Ez dute proiektuan esaten dena jarraitzen eta lur jabeen baimenik ez zuten lurretan ere sartu omen ziren. Lur jabeekin urriaren 19an akordio batetara iritsi ziren: azkenean, proiektu honetan inplikaturako familiek ez dituzte beren lurak galduko. Elgeako zentral eolikoa eraiki eta martxan jarriko balitz, lur horiek errentan utziko litzukete eta ordainetan, urtean 200.000 pezeta jasoko lukete.

### **Elgea, argi ilun asko dituen proiektua:**

Elgean ezarri nahi den parke eolikoaren proiektuaren aurka arrazoi pisutsuak eman dira: Araba eta Gipuzkoaren arteko mugen arazoa, Elgeako Parke Eolikoaren proiektu horrek aurreikusten dituen m2ak eta benetan udalerrri bakoitzari hartzen zaizkionaren artean dauden aldeak, Aizkorri Parke eolikoa izendatzeko 1995ean hartu zen erabakiaren atzerapenaren zergatia... Prozesu judiziala ere irekia dago, beste hainbat arrazoiaren artean, Elgeako zentral eolikoa ez baitator bat DOT arekin ( Directrices de la Ordenación de Territorio). Baina prozesu horren geldotasunaren aurrean, obrek aurrera jarraitzen dute.



## Gaizka Garai: “Europan barrena mugitzeko tren da garraibide onena; merkea, eroso eta azkarra delako”.

Kurtsoa bukatu bezain laster, lehengusua eta beste ikaskide bateaz ekin zion bidaia Gaizkak. Europa ezagutu nahi eta bidaia trenez egitea erabaki zuten, bidaiatzeko hain modan jarri den inter-rail txartela 30.000 pezetagatik eskuratuz. Gaizkaren aburuz, Europan barrena mugitzeko tren da garraibide onena; merkea, eroso eta azkarra delako. Pasatako azterketen zama astuna izan bazen, bizkarrean eraman beharreko motxilarena ere ez zen arinagoa, baina, oporretan zihoazen aitzakiarekin zama hori dexente arinagoa iruditu zitzaion. Hendaian hartu zuten lehen tren, uztailaren 8an, eta hantxe estreinatu zuten inter rail txartela. Tren hark Britainiaraino eramango zituen.

### BREITAINA: PAISAIA BERDE-AREN FRESKOTASUNA.

Hartu zuten lehen tren hartako esperientzia ezin esan erabat oparoa suertatu zitzaion; Bertan galdu baitzuten, beharrik izanez gero, gau ilun eta goibeletan babestuko zituen kanpin denda. Dena den, ustekabe hark ez zituen gure bidailagunen asmoak zapustuko, behar izanez gero aurkituko baitzuten zubiperen bat gaua pasatzeko.

Astebete egin zuten Britainan hara eta hona. <<Esan izan da herrialde hark eta Euskadik antzekotasun handia dutela, ba, Britaina ia osorik estal-


*tzen duen paisaia berdean baino ez diot aurkitu nik antzekotasunik>> aipatu zuen Gaizkak.*

Nantesen bi egun egin zituzten, museoak, gazteluak, eta lekuri tipikoenak ikusten. Hurrengo, Carnach-eko megalitoak ikusi ahal izateko gertu zeukaten herririka batera, Quiberonera, joan ziren. Hala ere, megalitoetara joateko ibilaldi luzea egin behar izan zuten eta motxila bizkarrean hartuta bide hura guztia egiteak ez zien grazia

handirik egin. Hare gutxiago, bertaraino joan eta han aurkitu zutena ikusita: << megalitoetara kostata iritxi eta hauek zaharberritze lanetan aurkitzen zirenez ezin izan genituen gertutik ikusi!>> argitu zigun Gaizkak, oraindik ere haserrea pasatu gabe zuela antzematen zitzaiola.



*Carnach-eko megalitoen ilera amaigabea hesien atzean.*



*Dinan, harresiz inguratutako herri zoragarri honen panoramika.*



Bueltako bidea ez zen lasaiagoa izan. Saint Malora oso berandu iritxi ziren eta ordurako albergea beteta aurkitu zuten. Gaua pasatzeagatik hotelean 3300 pezeta ordaindu beharrak tripako minak ere eragin zien eta nekatuta egon arren, lo ere ez zuten gustora egin. Biharamunean, Saint Malo bisitatu zuten, bizkarrean motxilak zituztela. Harresiz inguratutako herria da Saint Malo eta oso polita iruditu zitzairen.

Hala ere, hurrengo bizitatzera joan ziren herria, Dinan, da Gaizkaren ustez, bidai osoan ezagutu duten herririk politena: <<Dinaneko alde zaharra, dena erdi arokoa, zoragarria da>>. Gauean, su artifizialak ikusteko abagunea ere izan zuten hurrengo egunean jai nazional frantziarra zelako.



#### PARISEN DENETARIK:

Bost egun eman zituzten Paris bisitatzen baina ez ei ziren nahikoa izan. Gaizkaren esanetan, han denak merezi du ikustea: <<Kaleko edozein etxetatik hasi eta lekurik tipikoenaraino, han denak atentzioa deitzen dizu>>. Son handiko lekuak bisitatu zituzten, besteak beste: Eiffel dorrea, Garaipenaren arku, Pompidou...

#### BRUSELAS, HURRENGO ZITA:

Goizeko lau t'erdietan heldu zirenez, Bruselaseko tren estazio beltzean pasa behar izan zuten gaua. Itxarongelan sartzeaz bat, hango isiltasun erabatekoak, estazio osoan bakarrik zeuden inpresioa eman zien, baina, itxarongela egon, jendez gainezka zegoen. Maletak, jendea, eta paketeen artean txoko bat aurkitu zuten hutsik azkenean.

*Turismoko gidak eskatu genituen bai, baina, azkenean, gurasoentzat oroigarri gisa ekarri ditugu*

Baina, lo kuluska gozoenean zeudela, estazioko zaindaria sartu zen bazterrak nahastera. 6, 30 ziren diana jo zuenean eta segidan jende oldearen joan etorri etengabea hasi zen. Joan etorri honek estazioko hautsak arrotu zituen eta zarata ere, geroz eta jasangaitzagoa egiten zen. Beraz, gure lagunek, behin nagiak astindu zituztenean, astoramendu hartatik alde egitea hobe izango zutela pentsatu zuten.

*Arte Ederretako museoan eskultura modernoak nagusi.*

*Gaizka eta Iban, turistaz beterik zegoen Damm enparantzan.*



#### AMSTERDAMEN, TURISMOA BAI BAINA GUTXI:

Treanean Holandan barrena Amsterdamera hurbilduz zihoazen einen, treneko leihatilatik dena hain laua eta berdintsua zela ikustean, ikusteko ezer askorik egongo ez zen inpresioa jaso zuten gure lagunek. Gainera, hiri horretan egon ziren denboran turismo gutxi egin zutela aitortu digu Gaizkak: <<Turismoko gidak eskatu genituen bai, baina, azkenean, gurasoentzat oroigarri gisa ekarri ditugu guri ez baitigute ezer askotarako balio izan>>.

Turismo askorik egin ez arren, aspertzeko betarik ere ez zuten izan. Goizero egiten zuten Amsterdam ikusteko ahalegina, baina, hemendik edo handik abiatuta ere, hauentzat berdina zen, beti leku berdinean bukatzen zuten; arratsaldetan *koffie-shop*-etan meriendatzen. Amsterdam-en ikusi dituzten leku aipagarrienetako batzuk: Anna Frank-en etxea, Dam enparantza...

Itzulerako bidaia, zitzu bizian egiten den horietakoa izan zen eta hemeretzi orduren buruan trenak azken geltokira ekarri zituen. Erdi mareatuta baina gustora jeitsi ziren trenetik.

Horrela, Brujasera joan ziren. Postaletan bezain ederra da Brujas eta gure bidailagunen esanetan, hiria gurtzatzen duten kanalek xarma berezia ematen ei diote hiri honi.

Alde batetik, pozik, ahazte-zinezko hogeit egun pasa zituztelako, baina bestetik, baita penaz ere, trenak azken geltokian utzi zituenean gutzia amaitu zelako.



**Zein irizpide erabiltzen duzu udal hauteskundeetan botua emateko orduan?**



**Anabel Serrano**  
ikaslea


Kaletik batzutan jende gehiago ikusten da, baina egia esan nik ez dut diferentzia handirik ikusten ez dut nabaritzen aldaketarik herrian. Hemen betiko martxan jarraitzen dugu.



**Fermina Goiarrola**  
etxeakoandrea

Pisuen demanda igerri dou herrixan, bestela kalien be jente geixau mugiruten da....

Garai batian guriak Bilbora edo behintzat kanpora juan bihar izaten zien. Orain suerte geixau daukie gaziak herri bertan aukera hau izanda.



**Miguel Bónilla**  
langilea

Giro aldetik igerriko da, gazte jende gehiago eta honek bizia ematen dio herriari. Baina batez ere pisuak dituztenak nabariko dute hori, beraiei ondo etorriko zaie diru apur bat irabazteko, besteontzat ondo baina besterik gabe.



**Juan Oianguren**  
jubilatua

Bai neska gazte asko ikusten da eta honek herrixai saltsa geixau emuten dotza. Etxiak alkilerrian ere geixau demandaudou die. Bestela ez dau nobedadeik, baina herrixa mejorau eitzen dau.



**Benita Izurrategi**  
dendaria

Bai, igertzen da aldaketa; gazte geixau ibiltzen die. Erosketetan ere somatzen da ikasle geixau dauzela. Orokorrean orain herrixen bizi gehixau dauela uste dot.



**Nerea Zabala**  
langilea

Apurtxo bat bai, baina oraindik ez gehiegi. Gainera kursoa hasi berri da eta nik behintzat oraingoz ez dot igerri diferentziarik. Ez dakit danak hasi dien jadanik klasietan.

**SEAT**

**Udalaitz, S.L.**



Musakola auzoa, z/g.  
Tf. 943 791880 - 943 792125 - 943 792411  
Fax 943 792125

20500 **ARRASATE-MONDRAGON**



## GOROSARRI DANTZA TALDEAREN DEIALDIA

*Lerroalde hauek Eskoriatzako herritarroi zuzentzen dizkizuegu, Gorosarri dantza taldearen gora-behera batzuen berri eman nahi baitizuegu eta bidenabar, egoera dohakabe hau aldarazten lagunduko diguzuelakoan gaude.*

Mende hasierako dokumentu batzuek diotenez, Eskoriatzan dantza taldea beti izan da leku baten jabe, ekintza desberdinetan parte hartu duelarik. Horrela usadio honek, belaunaldiz-belaunaldi iraun du, azkenik, gureganaino heldu delarik.

Gaur egungo egoera larriari buruz hitz egin nahi genizueke hain zuzen ere. Arazo azpimarragarriena, taldea osatzen duen kopuru exkaxa da. Urteak aurrera doazen heinean, Eskoriatzako gazteok egin behar ezberdinei heltzen diegu, poliki-poliki dantzari izateari utzi egiten diogularik. Hau izango litzateke arazoaren muina; honen erruz, taldea txikitzeaz gain zama guztia arduradun gutxiren gainean gelditzen baita. Besteak beste txikiagoei euskal dantzak irakastea, dantzari nahiz haurren egunak antolatzea, zaila egiten da, eta are gehiago, mutilek, dantzari kopuruaren laurdena ere osatzen ez dutenean; honek dantza kopuru konkretu bat soilik ikastera mugatzen gaitu.

Gure arbasoek hain maitea zuten ohitura bati nagikeria hutsagatik aldentzen utzi behar al diogu? Dantzariak dantzatzeari, bertsolariak abesteari, trikitilariak soinua jotzeari... utziz gero, non geldituko litzateke euskaldunon ondarea? Euskaldun egiten gaituzten ezaugarri garrantzitsuenetariko batzuk ohiturak ditugu eta hauek, behin galdu eta gero, oso zaila dira berreskuratzeko: "alperrik baita ura joan eta gero presa



egitea". Beraz ezinbestekoa da guztion partaidetasuna, denok jarri behar baitugu apur bat, gutxi batzuk dena eman behar izan ez dezaten.

Gure asmoa ez da gauza guztiak bertan behera utzi eta garrantzitsuena ohitura mantentzea dela esatea, ez horixe. Guk zera gogoraraztea besterik ez dugu nahi: aspalditik geurea izan den ohitura bat galtzeko arriskuan gaudela eta jaialdi nahiz egun berezietan dantzariak ikusten jarraitzea nahi baldin badugu, gure aisialdiaren zati txiki bat dantzatzeari dedikatu beharko diogula. Beraz, eskoriatzar haur, gazte eta batez ere mutilei, dantza taldeko partaide izateko gonbidapena luzatzen dizuegu.

Besterik gabe, **interesatuak zaudeten guztiak, Azaroaren 15ean, astelehena, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean egingo den bilerara etorriko zaretelakoan gaude.**

Eskerrik asko alde z aurretik.  
**GOROSARRI DANTZA TALDEA**



# LASAGABASTER



**BEHARREZKO**

**TELEFONOAK**

**Eskoriatza**

Udaletxea 943-714407  
 Udal Bulegoak 943-714532  
 Udaltzaingoa 943-714407  
 Euskaltegia 943-792168  
 Kultur-Etxea 943-714688  
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688  
 Kiroletxea 943-715328  
 Liburutegia 943-714688  
 Luis Eceiza 943-714938  
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486  
 Almen 943-714964  
 Museo-Eskola 943-714688  
**Ze Barri? 943-715434**  
 Talde Antimilitarista 943-715028  
 Irakasle Eskola 943-714157  
 Osakidetzatza 943-714452  
 Telesko 943-714917  
 Taxia 943-714059

**Bestelakoak**

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800  
 Renfe (Zumarraga) 943-721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 902 101 210  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 112

**AZOKA**

**VolsWagen Combi guztiz  
 ekipatua salgai**

**Tfnoa 943 -71.49.15**

**JAIOTZAK**

99-10-4 Lander Mediavilla  
 Encina.  
 99-10-6 Irati Limon Ortiz.  
 99-10-6 Aintze Viteri Uribarren  
 99-10-23 Ekaitz Oñate Uribe.

**EZKONTZAK**

99-10-2 Jose Miguel Mediavilla  
 Gutierrez eta Elisabet Andres  
 Aguiriano  
 99-10-30 Miguel Angel Mateos  
 Sanchez eta Mirian Maria  
 Madinabeitia Madinabeitia.

**KONTZIENTZI ERAGOZPENA**

\* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Arrasateko Gazte Bulegotik eta bertan emango dizugu paperak tramitatzeko behar dizun informazioa.

**DIRULAGUNTZAK**

\* Alemaniako DAAD zerbitzuak eta La Caixa Fundazioak, Alemanian hainbat ekintza burutzeko dirulaguntzak aurrikusi ditu: ikasketa eta ikerkuntza lanak burutzeko, alemaniera ikasteko, ikasketa bidaiak egiteko, udako unibertsitateetan parte hartzeko, e.a. Guzti hauetarako epe ezberdinak daude.dirulaguntzak. Epea: urriak 29.

**LANA**

\* Añorbeko liburutegirako arduradun bat behar dute. Epea: azaroak 10.

**IKASTAROKAK**

\* Ekin emakume taldeak barazkizaleen sukaldaritza ikastaroa antolatu dute, urria eta azaroan larunbat goizez burutuko dena.

\* Sakontze mailako Dantza Karibear ikastaroa. Astelehen eta asteazkenetan 7.30etatik 9.30ak arte. Matrikula 4000 pta/2500 ikasle eta langabeentzat.

\* Gaur egungo dantza eta jazz dantza ikastaroa: larunbat arratsaldetan, Arrasate Musikalen burutuko da ikastaroa. Matrikula

5000 pta/3000 ikasle eta langabeentzat.

\* Hezkide Eskolak eta Urtxintxa Elkarteak urteroko ikastaroak antolatu dituzte: astialdiko begiralea, astialdiko zuzendaria, ludotekak, gazte lekuak, malabare tailerra, euskara suspertzailea, euskal jolasak, adierazpen tailerra, heziketa berezia, hezkidetzatza, drogomenpekotasunen prebentzioa eta 3. adinaren dinamizatzailea. Ikastaroak Donostian burutuko dira. Epe ezberdinak.

**LEHIAKETAK**

\* Irungo Zine eta Bideo Gaztea lehiaketa. 18-35 urte arteko gazteei zuzendua, lanak 1997ko uztailak 1 ondoren eginak izan beharko dute. Epea: azaroak 10.

\* Donostiako Udaleko Emakume Sailaren eskutik, Komiki Ez Sexisten lehiaketa. 16 urtetik gorakoei zuzendua, txuri beltzean edo koloretan, 2tik 4 orrialdeko luzerakoak eta formatu bertikalean eginak. Epea: azaroak 26.

\* Euskal esakera barrien lehiaketa antolatu du Bermeoko Gazte Informazio Zerbitzuak. Egunero kalean erabiltzen diren euskal esakerak saritu nahi dira. Epea: azaroak 30.

\* Bilbao "Pop Rock" lehiaketa antolatu da aurten ere. Edozein taldek har dezake parte bi musika modalitateetan: pop-rock edo metal. Lanak aurkezteko epea: abenduak 31.

**ZINE GOMENDIOA: IONE,  
 IGO ZERURA**

"Ione, igo zerura", Joseba Salegiren lehenengo filmearen berri eman nahi dizuegu. Filme hau bai erdaraz, bai euskaraz emango da Euskal Herriko zine aretoetan. Modu honetan, euskaldun guztiek zinea euskaraz gozatzeko aukera izango dute.

**Sinopsia:** Ionek aktore izan nahi du. Berak zine munduan sartzeko duen aukera bakarra, arrakasta gutxiko zine-ekoizle bat da. Ezusteko enkargu bat iristen da ekoizlearen bulegora: erligio-ordena bati buruzko filme bat egitea. Lana eskatzen duen erligio-elkarteak zine-taldea oso aurrekontu gutxirekin filmatzera behartzen du. Gainera, Hau gutxi balitz, mojak ekoizpena kontrolpean edukitzen saiatzen dira. Botereen borroka izango da nagusi bai komentu barruan bai kanpoaldean ere.







Hile honetan dakargun argazki zaharra 1955. urtean aterata dago kintoen bazkari baten ostean.

Ezkerretik eskumara

Goiko lerroan:

Pedro Uribe-etxebarria, Andres Zubizarreta, Juan Akizu, Juan Isasmendi, Bartolome Carrillo, "Pichon" eta Antoni Badiola.

Erdiko lerroan:

Periko Etxebarria, Marcos Diaz de Guereñu, Benigno Lasa, Jesus Urzelai, Ignacio Galdos, Nicolas Eraña, Faustino Legazpia, Gaspar Pérez, Arrasatearra, Miguel Iturrospe.

Beheko lerroan:

Gonzalo Encina, Anton Iregi, Fco. Barandiaran, Eduardo Oregi, Santi Ramos, Alberto Unzueta, Jose M<sup>a</sup> Lazkano, Pedro M<sup>a</sup> Zaldúa.

Argazkia: Arantza Unzueta

Informazioa: Jose Cruz Uribe-etxebarria

Iraileko Ze Barri?n peregrinazio bateko argazki zaharra argitaratu genuen baina informazio gutxi genuenez, argazki hura non aterata zegoen zekienak Ze Barri?ra dei zezala eskatzen genuen. Bada, Francisca Uribesalgok egun hura ederto gogoratzen zuen eta berari esker dakigu, duela 40 urte Lourdesera eginiko peregrinazio batean ateratako argazkia dela.

**Zuen etxeetan horrelako argazki dotoreak badituzue, bidali iezaguzue Ze Barri?ra (Kultur Etxera) edo deitu (943- 71 54 34) telefonora.**



# ZURE PUBLIZITATEA ZE BARRI?N EGITEKO GUREKIN HARREMANETAN JARTZEA BESTERIK EZ DUZU

## AURTENGO MODULUEN TARIFAK (1999)

ZURI-BELTZEAN		KOLORETAN	
Orrialde osoa	25.000 pta.	Kontraportada	40.000 pta.
Orrialde erdi	15.000 pta.	Orrialde osoa	30.000 pta.
8 modulo	12.000 pta.	Orrialde erdi	17.500 pta.
6 modulo	9.000 pta.		
4 modulo	6.000 pta.		
2 modulo	3.000 pta.		
Modulo bat	1.500 pta		

### Aldizkariaren ezaugarriak

Aldizkotasuna:	Hilabetekaria
Tirada:	2.000 ale
Formatoa:	DIN A 4
Moduloaren neurria:	4 x 4
Banaketa:	Dohainik banatzen da Eskoriatzako etxe guztietan Auzoetan eta Gatzagan

Modulo 1  
4 x 4 zm.

Ze barri?